

DBH4 GIZarte: "A time for revolution (1700-1900)"

Ezagutzak

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. XVIII. eta XIX. mendeetan garatutako gizarte industrial berrien garapen desberdinak konparatu, garaiko berrikuntza teknologikoak aztertuz.	1.1. <i>Ikasleak, XVIII. mendean Ingalaterran izandako Industria Iraultzarekin loturiko faktore eta ondorio desberdinak alderatu eta ondorio desberdinak atera ditu.</i>
2. Gertakari jakin baten argazki/marrazkiak gertakari historiko batekin lotzea eta hauen garrantzia azaltzea.	2.1. <i>Ikasleak, Industria Iraultzan oinarritutako testuak ulertu ditu.</i>
	2.2. <i>Ikasleak, gizarte industrialaren ezaugarriak eta ideologia desberdinak identifikatu eta inferitu ditu hainbat iturri erabiliaz.</i>
3. XVIII. mendean Europan gertatutako aldaketa sozial eta politiko nagusiek, hala nola, Nekazaritza Iraultzak, Industria Iraultzak eta Frantziar Iraultzak, zein kausa eta ondorio izan zituzten ezagutzea.	3.1. <i>XVIII. mendean Frantzia iraultza bat gertatzearen kausa eta ondorio desberdinak klasifikatu eta identifikatu ditu ikasleak, aurretik emandako irizpide batzuen arabera.</i>
4. XIX. mendean jaiotako ideologiak identifikatu eta ezagutzea eta gaur egun ere duten presentzia ulertzea.	4.1. <i>Ikasleak, iraultza, sistema politiko eta ideologia desberdinen ezaugarri nagusiak identifikatu eta inferitu ditu, hainbat informazio-iturri erabiliz.</i>
5. XVIII. mendeko gizarte industrial berria ongi ulertu eta bertako biztanleekin identifikatzea, hauen bizi eta lan baldintzak ulertuz eta gaur egungo egoerarekin alderatuz.	5.1. <i>Ikasleak pertsonaia historiko baten ikuspuntutik gertaera jakin bat aztertu eta deskribatu du, gertaera horren kausen analisia egin du eta pertsonaiaren ideologia aztertu du.</i>